

Jasangarritasun Plana 2015



Legezko oharra	1
Planeko ekintzei buruzko Itxiera Txostena, 2015eko abenduaren 31n	2
● 1. programa: Gobernantza	2
● 2. programa: Giza eskubideak	5
● 3. programa: Lan arloko jardunbideak	6
● 4. programa: Segurtasuna	9
● 5. programa: Ingurumena	20
● 6. programa: Bidezko jardunbideak: ustelkeriaren aurka egitea eta etika	39
● 7. programa: Bidezko jardunbideak: balio-katea	40
● 8. programa: Kontsumitzaileen gaiak	42
● 9. programa: Parte-hartze aktiboa eta komunitatearen garapena	47
Ekintzen aurkibidea	70

Legezko-oharra

Iraunkortasun plan honek ekintza multzo bat hartzen du, osorik edo zati batean, legeak exijitzen duenetik harago doazen ekintzak eta garapen iraunkorrean laguntzera bideratuta daudenak. Repsol Taldean parte hartzen duten enpresek ekintza horiei guztiei heldu eta horiek betetzeko asmo sendoa dute. Edonola ere, bere egiten dute aldatzeko, atzeratzeko edo betetzea bertan behera uzteko eskubidea, horrek inolako legezko erantzukizunik ekarri gabe berekin. Dena den, kasu horiek jendaurrean justifikatzeko konpromisoa hartzen dute.

© PETRONOR, S.A. 2015: Eskubide guztiak erreserbatuta. Dokumentu hau Petronor, S.A. sozietatearena da, eta baimena ematen du osorik edo zati batean erreproduzitzeko, soil-soilik zabalkundea emateko merkataritza helbururik gabe.

2015eko Iraunkortasun Planeko ekintzei buruzko Itxiera Txostena Petronor

1. programa

Gobernantza

EKINTZA	Elkarrizketa prozesuak hitzartzea, akordioak errazteko.
DESKRIBAPENA	Panel Publiko Aholkularietan (PPA) akordioak hitzartzeko metodologia bat antolatuko dugu. PPA hitz egiteko eta akordioak lortzeko foro iraunkorra da. Bertan, Petronorrek eta interes taldeen ordezkariak konplexu industrialaren gauzatzeari eragiten dioten alderdi nabari buruzko iritziak eta informazioa trukatzeko dituzte. Etabaidatuko diren gaietan horretan zenbat denboran aritu erabakiko da. Ez bada akordiorik lortzen, hurrengo saio edo bilerarako utziko da, eta han informazio berria sartuko da.
ADIERAZLEA	Etabaidatuko den gaien kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Urte honetan zehar hamabi bilera egin ditugu Panel Publiko Aholkulariekin (PPA). Etabaidatutako gaiak informazio objektiboarekin azaldu ditugu zenbait bileratan, eta argituta gelditu dira. 2015 honetan ez da gelditu informazio gabeko gairik.

EKINTZA**Eskumenak dituzten erakundeei gure jardueren berri ematea.****DESKRIBAPENA**

Erakunde publikoei Petronorren ditugun berrikuntzen berri ematen jarraituko dugu, ohiko moduan eta gardentasunez. Egun egiten dugun moduan, komunikazio arina eta etengabea edukiko dugu eskumenak dituzten erakunde publikoekin eta hurbil dauden udalekin, eta bai gainerako erakunde publikoekin ere. Helburua izango da, industria istripuak edo gorabeherak gertatzen badira, herritarrei berriak jakinaraztea.

ADIERAZLEA

Erakunde publikoei egindako jakinarazpen kopurua.

GAUZATU DEN URTEA 2015**EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N****EGOERA**

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Petronorren prozedurei jarraituta, erakunde publikoekin hartutako konpromisoak bete ditugu gure jardueren berri ematean, eta bai enpresaren instalazioetan sortzen den edozein industria istripu edo gorabeheraren berri ematean. Zehazki, izan diren 90 gertakariak eta lantegian izandako funtzionamendu aldaketak jakinarazi ditugu.

EKINTZA	Informazio garrantzitsua herritarrei jakinaraztea hobetzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Sare sozialen, jakinarazpen ofizialen eta gure webgunearen bidez kanpora egiten ditugun jakinarazpenak hobetzen jarraituko dugu. Xedea da ahalik eta herritar gehienek eskuratu ahal izatea informazioa.
ADIERAZLEA	Albiste kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Informazioari zabalkundearen eman diogu hedabide guztietan –barnean hartuta sare sozialak, Petronorren webgunea eta erakundeei egin beharreko jakinarazpen ofizialak–, Petronorren izan ditugun albiste nabarmenenak helarazteko asmoarekin.

2. programa

Giza eskubideak

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Ekonomiaren, gizartearen edo kulturaren arloko eskubideen alde egiten duten erakundeekin elkarlanean aritzea.
DESKRIBAPENA	Elkarlanean ariko gara bertako eta nazioarteko elkartasunaren arloan jarduten duten inguruko erakundeekin. Laguntza humanitarioa emateaz gain, alderdi sozial eta heziketakoetan esku-hartzea sustatzen duten jarduketak lehenetsiko ditugu.
ADIERAZLEA	Batera finantzatutako proiektu kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Inguruko udalekin lankidetzan aritu gara, Repsol Fundazioaren material didaktikoa emanez. Material hori udalerrri horietako programa sozial eta heziketakoetarako erabili dute. Udalei sei entrega egin zaizkie.

3. programa

Lan arloko jardunbideak

Lan-baldintzak

EKINTZA	Emakumeak sartzea Petronorren zuzendaritzan.
DESKRIBAPENA	Fintzea Kudeatzea Hobetzeko Plana integratu eta gero (langileen eginkizunen egitura malguago eta eraginkorragoa lortzeko bilakaeran oinarritzen da), emakumeak sartu dira erakundeko aginte lanpostuetan. Xedea da, garapen profesionalerako berdintasunezko estrategien bidez, bi sexuetako langileak erakundearen egitura eta lanpostu guztietan orekatzea.
ADIERAZLEA	Goi karguetan dauden emakumeen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatzen.
ITXIERAKO TESTUA	Progresiboki ari gara sartzen emakumeak bai enpresan eta bai enpresaren zuzendaritzan ere. Horren adibide garbia da Fuel-olioa Murrizteko Unitateen Saila (URF), sail giltzarria Petronorren, emakume batek zuzentzen duela.

Elkarrizketa enpresaren eta langileen artean

EKINTZA	Barne elkarrizketa arina edukitzea sindikatuetao taldeekin.
DESKRIBAPENA	Laneko gatazkak ebaztean akordioak ahalbidetzeko helburuarekin, barne elkarrizketa arina edukiko dugu sindikatuetao talde desberdinekin. Hartara, planteamendu horiek gure jardueraren industria errealitatearen kontrakoak diren interes taldeen argudioak elikatzea saihestuko dugu.
ADIERAZLEA	Laneko gatazken kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Komunikazio arina eduki dugu sindikatuetao taldeekin. Hori nabarmen gelditu da hitzarmena onartzean, 2015eko lan gatazka bakarra. Hartara, sindikatuen zenbait mesfidantza gainditzea lortu dugu.

Aniztasuna eta kontziliazioa sustatzea

EKINTZA	Aukera berdintasuna sustatzea.
DESKRIBAPENA	Garapen profesionala bultzatuko dugu, esparru guztietan berdintasuna bermatuta, genero, kultura edo erlijio arrazoiengatik bereizkeriarik egin gabe. Horretarako, diskriminazio positiboko ekintzak aplikatuko dira, jardunbide on moduan, arlo pribatuan eta publikoan identifikatu direnak.
ADIERAZLEA	Aniztasuna agerian uzten duten pertsonen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	2015ean langileak hautatzeko egin ditugun prozesuetan, zortzi emakume sartu dira planta kimikoko operadore izateko ikastaroan. Hain zuzen, hautagaien %20 eta portzentaje bikoitza, gizonen hautaketa prozesuarekin alderatuta.

4. programa

Segurtasuna

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA

Jokabidearen segurtasunari buruz egin dugun ikerketaren emaitzak aplikatzea.

DESKRIBAPENA

Giza alderdia eta erakundearen jokaera hobetuko dugu, segurtasunaren kulturaren aurrera egiteko, kanpoko enpresa batek egin dugun segurtasunaren gogoetari eta hobekuntzari buruzko azterlanaren ondoren. Egungo egoera hobetzeko politikak eta ekintza planak zehaztuko ditugu, ikerketan aurkitu eta ikusitako enbeldu beretik. Izan ere, jokabidearen segurtasunaren eredu berri bat ezartzea erraztuko dute, jokaeren oinarrian dauden balio emozionalen analisisian oinarrituta.

ADIERAZLEA

Planak izan duen aurrerapenaren ehunekoa.

GAUZATU DEN URTEA

2015

EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N

EGOERA

Gauzatzen.

ITXIERAKO TESTUA

Tarazagarekin genuen proiektua bukatu dugu, azaroaren 23an *workshop*-a eginda. Bost saio egin ditugu eta guztira 50 lagunek parte hartu dute. Zehaztu diren hamar taldeak lanean ari dira, eta, beraz, ekintza berria abiaraziko da 2016ko Planean, hari jarraipena emateko.

Arriskua kudeatzea

EKINTZA	Suteen kontrako borrokari eta larrialdiei buruzko prestakuntza ematen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Lanean hasten diren langile berriei suteen kontrako borroka teknikei buruzko prestakuntza emango diegu berariazko prestakuntzako instalazioetan eta suteen kontrako praktika eremuetan: Ispaster, suteen kontra borrokatzeko teknika aurreratuetako segurtasun arloko langileei; Tepesa, txandako arduradunei eta goi zuzendaritzako kideei; Senagosa, petrokimiketako larrialdiak kudeatzeko eta koordinatzeko prestakuntza.
ADIERAZLEA	PROA egiten dutenen ehunekoa larrialdietarako ikastaroetan.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Suteen kontra borrokatzeko eta larrialdietarako prestakuntza emateko ikastaroak egin ditugu lanean ari diren langileentzat. Guztira, PROAren %30 egin dugu larrialdietarako ikastaroetan. 2016rako utzi ditugu segurtasun langileentzako, txandako arduradunentzako eta goi zuzendaritzako kideentzako ikastaroak. Halaber, 2016ko Planean ekintza berria abiaraztea erabaki dugu, oraingoari jarraipena emateko.

EKINTZA**Eguneroko jardueretan segurtasun operazionalako jardunbideak sartzea.****DESKRIBAPENA**

Instalazioekin eta ekoizteko prozesuekin trebatzea handituko dugu, zerbitzuen hutsegiteen simulakro operatiboak eginez (hutsegite elektrikoa, lurrunarena, hozteko urarena eta abar).

ADIERAZLEA

Industria gorabeheren kopurua murriztea.

GAUZATU DEN URTEA

2015

EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N**EGOERA**

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Gorabeherak jakinarazteko kultura handitu dugu. Jakinarazpen gehiago egiteak berekin ekarri du "erregistratutako industria gorabeheren kopuruaren" adierazlea handiagoa izatea. Modu gehigarrian, simulakro operatiboaren prestakuntza handitu da eta denak urtero egiten dira.

EKINTZA	Simulakroen gaineko informazioa ematea inguruko herriei.
DESKRIBAPENA	Inguruan antzeman daitezkeen alderdi guztiei buruzko informazioa emango dugu, aurretik eta behar adinako denborarekin, batik bat ohikoak ez diren eta unean unekoak diren jardueri buruzkoa.
ADIERAZLEA	Abisuen kopurua, simulakroak egin aurretik.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	2015erako programatutako simulakroa egin dugu, bai findegian, bai itsasoko terminalean. Aurretiazko abisua eman zitzaien erakunde guztiei.

EKINTZA

Segurtasun jardueretan parte hartzea gure taldeko beste unitate batzuekin.

DESKRIBAPENA

Segurtasun arloan, aldian behingo bilerak ezarriko ditugu gure enpresa taldeko beste negozio unitate batzuetako zentroekin, besteak beste, Santurtziko GLPrekin. Helburua izango da ezagutza partekatzea eta batera jardutea larrialdietako egoeretan.

ADIERAZLEA

Egindako bileren ehunekoa.

GAUZATU DEN URTEA 2015

EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N**EGOERA**

Gauzatzen.

ITXIERAKO TESTUA

Ekainaren 1ean lehen bilera egin genuen Santurtziko GLPrekin eta bisita egin zen instalazioetara. Egun, protokolo bat zehazten ari gara, bi instalazioak komunikatzen dituzten ponpak gelditzen direnean jardutea arautzeko, izu kontrako sistema probatu eta gero. Aurreikusita dago bilerak egiten jarraitzea 2016an.

EKINTZA

Suteen kontrako babes lehiaketetan parte hartzea.

DESKRIBAPENA

MAPFRE GLOBAL RISK enpresak bi urtean behin antolatzen dituen suteen kontrako babes lehiaketetan parte hartuko dugu, enpresa horrek bere asegurdunentzat antolatzen dituen Segurtasun eta Aseguruen Jardunaldi Teorikoen barnean. 2015ean, Ispasterko Sueskola praktika eremuan egin ziren jardunaldiak.

ADIERAZLEA

Probetan lortutako sarien ehunekoa.

GAUZATU DEN URTEA 2015

EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N

EGOERA

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Mapfreren lehiaketan 2015eko maiatzeko lehen astean parte hartu dugu. Segurtasun arloko hiru operadorek parte hartu dute eta laugarren postua lortu dute.

EKINTZA**Inguruko udalei Autobabes Plana aurkeztea, berrikusita.****DESKRIBAPENA**

Inguruko udalei (Abanto, Muskiz eta Zierbena) findegiko Autobabes Planaren berrikuspena emango diegu, egokia bada eguneratuta. Bertan, jasota egongo dira egitura berriarengatik eta simulakroetan detektatutako hobekuntzak sartzeagatik egin ditugun aldaketak.

ADIERAZLEA

Udalen ehunekoa.

GAUZATU DEN URTEA 2015**EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N****EGOERA**

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Irizpidea ezarri dugu aholkularitza juridikoarekin eta azaroaren 11ko Segurtasuneko Batzorde Nagusian azaldu dugu. Proposamen bat prestatu dugu zuzendaritzarako, abenduaren 9ko asterako, Abanto, Muskiz eta Zierbenako udaletara bidali baino lehen.

EKINTZA

Suteen kontrako parkeko ekipamendua sendotzea.

DESKRIBAPENA

Egindako inbertsio proposamenen ondoren (10.000 gpm-ko emari handiko monitore bat eskuratzea eta suteen kontrako kamioi bat berritzea, gorabeheretan esku hartzeko), HYTRANS izeneko ponpatze ekipamendua eskuratuko dugu, malgutasun handiagoa izateko. Emari handiko ponpa bat du barnean, urez hornitzeko iturri berriekin erabiltzeko (spillpond, itsasoko terminala). Beharrezkoa bada, ekipamendu horiek kanpoan erabil daitezke, inguruko udalerrietan uholdeen eraginak arintzen laguntzeko.

ADIERAZLEA

Egindako inbertsioen ehunekoak.

GAUZATU DEN URTEA 2015

EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N

EGOERA

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Konplexu industrialeko suteen kontrako parkeko ekipamendua sendotu dugu, inbertsio proposamen hauek eginda: HYTRANS ponpa, 230.000 euroko inbertsioarekin (2015ean onartu da eta 2016an emango da); eta kamioi berria 2016rako. 2016ko Planean ekintza berria abiaraziko da, honi jarraipena emateko.

EKINTZA**Arriskuen ebaluazioa sendotzea.****DESKRIBAPENA**

Arriskuen ebaluazioaren berri ematea sendotuko dugu eta arrisku horiek era dinamikoagoan jakinaraziko dizkiegu Petronorren plantilla eratzen duten langile guztiei.

ADIERAZLEA

Kexen kopurua.

GAUZATU DEN URTEA

2015

EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N**EGOERA**

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Lanpostu bakoitzaren berriazko arriskuen ebaluazioa Petronorreko langile guztiei jakinarazten jarraitzen dugu. Lanpostu bakoitzaren arriskuak hobeto ezagutzeko, Petronorrek ikastaroak ematen dizkie erakundeko langile guztiei. Xedea da langile bakoitzari kontzientzia harraraztea bere lanpostuak dituen arriskuen gainean, istripu kopurua murrizteko. Ez da kexarik jaso.

Merkataritzako harremanak

EKINTZA	Laneko segurtasuneko estandar handiak sustatzea enpresa esleipendunetan.
DESKRIBAPENA	<ul style="list-style-type: none">- Segurtasuneko estandar minimoak ezarriko ditugu, nahitaez bete beharrekoak.- Segurtasun arloko prestakuntza emango dugu berariazko gai eta arriskueta.- Jarduera hobeak eta ikasitako gaiak zabalduko ditugu lantokian batera aritzen diren enpresen artean.- Segurtasuna bultzatuko dugu urteko bilerak eginda, sariak emanda, eta segurtasunaren eta ingurumenaren gaineko helburuak jarrita.- Laneko segurtasunaren gaien prestakuntza ikastaroak antolatuko ditugu, araudiak berak nahitaez eskatzen dituzenez gain.- Hornitzaileak OSHAS 18.001 arauari jarraitzea baloratuko dugu.
ADIERAZLEA	Mantentze zerbitzuen hornitzaileei egindako OSHAS 18.001 auditoretzen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Petronor etengabe ari da enpresa jarduerak koordinatzen. Segurtasun alderdiak ezagutzen direla antzematen den neurrian, erakundearen eta industria zerbitzuen hornitzaileetan, ekintza guztietan seguru jardutea lortuko dugu. Hori dela-eta, segurtasunari lehentasuna ematen diogu enpresetan segurtasun sariak ematean, lan egiteko eskatzen diren segurtasun ikastaroak ematen ditugu, eta alkoholaren eta drogen kontrola egiten dugu.

EKINTZA**Langile esleipendunen segurtasunean aurrera egiten jarraitzea.****DESKRIBAPENA**

Euren langileentzat Petronorreko segurtasun sistemaren antzekoa duten esleipendunekin bakarrik jarraituko dugu lanean.

ADIERAZLEA

Istripuen kopurua.

GAUZATU DEN URTEA 2015**EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N****EGOERA**

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Segurtasunari garrantzi berezia eman diogu 2015eko konbertsioko geldialdi orokorrari. Horretarako, geldialdian lan egin duten langile guztiek segurtasunaren gaineko hainbat hitzaldi jaso dituzte. Segurtasuneko bilerak egin ditugu egunero enpresa esleipendunetako arduradunekin. Prestakuntza nagusiko modulu bat egin dugu esleipendun guztientzat, eta egun ezartzeko fasean dago. Barnean hartzen du su-itxalgailuen eta ERAREN gaineko prestakuntza. Gertatutako istripuak 4.1 izan dira.

5. programa

Ingurumena

Biodibertsitatea

EKINTZA	Biodibertsitatea babestea.
DESKRIBAPENA	“Gertaera Abiarazle Posibleak” tresna (SIP) kudeatuko dugu. Hain zuzen, aktibatzen badira, inguruaren eragina izan dezaketen kasu edo hipotesi guztiak aztertzen ditu. Zorrotz ezartzen bada, inguruko biodibertsitatean eragina izateko probabilitateak gutxitzen dira.
ADIERAZLEA	Gertaeraren probabilitatea murriztera bideratutako ekintzen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Kontrolerako ekipamendu berriak (azpiegiturak zaintzea, lurperatutako lineak kentzea, BT kargatzeko beso berriak...) berrikusi ditugu eta 2016rako planifikatutako guztiak aztertu ditugu, ebaluatutako 85 arriskuetatik 72 minimizatuta.

Klima-aldaketa

EKINTZA	Berotegi efektuko gasak aztertzeke nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.
DESKRIBAPENA	<p>Teknologikoki garatuta dagoen eta klima aldaketaren kontrako borrokan proaktiboa den enpresa moduan, berotegi efektuan eragiten duten gasak aztertzeke nazioarteko korrelazioetan parte hartuko dugu.</p> <p>Korrelazio horiek agerian uzten dute gure laborategiko saiakuntzetan aplikatzen dugun neurketa eta azterketa metodologiaren zorrotasuna. Alderaketa beste herrialde batzuetan ospetsuak diren laborategiekin egiten da. Nazioartean ezagunak diren sozietateek parte hartuko dute korrelazio horietan.</p>
ADIERAZLEA	Lortutako DIN akreditazio ziurtagiria. Korrelazioan parte hartzea.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Korrelazioan parte hartzeke eta akreditatzeko aurreikuspenak bete ditugu.

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Petronorrek Muskizen egiten duen jarduera ingurumen ikuspegitik kudeatzea.
DESKRIBAPENA	Ingurumen kudeaketa sustatuko dugu, bai Petronorren instalazioetan, bai inguruan ere: - Kultura horretan inplikaturiko ditugu Petronorren lan egiten duten enpresak. - Arreta berezia jarriko dugu Barbadun ibaiaren kontserbatze egoeran.
ADIERAZLEA	Barbadun ibaiaren kontserbatzea.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Segurtasunaren arloko ikastaroa eman diegu Petronorren findegian sartzen diren enpresa eta langile kontratadun guztiei. Hartara, ingurumeneko jardunbide onen garrantzia azaldu ahal izan zaie ikastaroan. Hori guztia eta erakunde osoak egin duen ahalegina kontuan hartuta, Barbadun ibaian egindako azken azterlanek agerian utzi dute ibai horretako uraren kalitatea ezin hobea eta egokia dela.

EKINTZA	Ingurumena sustatzen duten inbertsioak identifikatzea.
DESKRIBAPENA	Amaitu ditugun proiektuak aztertuko ditugu, haietan administrazioak ingurumena sustatzeko proiektutzat jotzen dituen alderdiak identifikatzen saiatzeko (3032/2007 FORU AGINDUA, Ingurumeneko Foru Saila). Administrazioak egindako ebaluazioak agerian uzten du Petronorrek egiten dituen inbertsioekiko duen ingurumen konpromisoa.
ADIERAZLEA	Inbertsio itxien ehunekoa, urtero berrikusten direnena.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	2015eko abenduaren 1ean, urtean itxitako inbertsioen %100 berrikusi eta aintzat hartu ditugu. 21 proiektu aurkeztuko dira administrazioak onartzeko. Haien balioa 3,5 milioi eurokoa da.

EKINTZA	Zarata eta usainak amaitzeko taldeen ekintzak emendatzea.
DESKRIBAPENA	Ingurumen kudeaketa etengabe hobetzen jarraituko dugu. Zarata eta usainak amaitzeko taldeen jarduerak areagotuko ditugu. Usainak eta zaratak direla-eta jasotzen diren kexa guztiak aztertzen ditu diziplina anitzeko taldeak. Aztertu ondoren, jatorria ezabatu edo arindu dezaketen inbertsioak edo jarduketak erabakitzen dira. Ekintza plana osorik gauzatu eta gero, sorgune nabarmenenak identifikatzen eta haiei ekiten jarraituko dugu.
ADIERAZLEA	Amaitutako ekintzen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	10 motor elektriko ordeztu ditugu ponpatze ekipamenduetan eta exhaustatze sistemetan hobekuntzak ezarri ditugu. Ekintza horien bidez agerian utzi nahi da enpresak herritarrentzat garrantzitsuak diren alderdietan duen konpromisoa.

EKINTZA	Ingurumena sustatzen duten inbertsioei buruzko informazioa ematea.
DESKRIBAPENA	Petronorren inbertsioen ingurumen sustapenaren gaineko informazioa emango diegu findegiaren ingurukoei eta langileei (Petronorren webgunean eta Gaztelu Berrin). Asmoa da ingurumenaren ikuspegitik legez exijitzekoa denetik harago joateko itxaropenari erantzuna ematea.
ADIERAZLEA	Argitalpenen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	2014ko ekitaldirako gauzatzea lortu dugun ingurumen kenkarien zenbatekoaren berri eman diegu Petronorren langile batzuei

<p>EKINTZA</p>	<p>Ingurumenerako eragina minimizatzea jardueren maila guztietan.</p>
<p>DESKRIBAPENA</p>	<p>Igorpen atmosferikoak, lurzoruan izandako eragina eta efluenteen isurpena kontrolatuko ditugu jardueren maila guztietan (produkzioa, balio katea, produktuak), hurbileko inguruan, ingurumenean, dituzten eraginak ekiditeko. Informazio hori Ingurumena Zaintzeko Planean jasoko da. Plan hori urtero bidaltzen diogu Eusko Jaurlaritzari, Ingurumen Baimen Integratua (IBI) betetzeko. Interes taldeei behar bezala helaraziko diegu. Horretarako, komunikabideak eta sare sozialak erabiliko ditugu, Panel Publiko Aholkulariek ahalbidetzen dituzten foroez gain.</p>
<p>ADIERAZLEA</p>	<p>Alderdi horien gainean, inguruak egindako kexa funtsatuen kopurua.</p>
<p>GAUZATU DEN URTEA</p>	<p>2015</p>
<p>EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N</p>	
<p>EGOERA</p>	<p>Gauzatuta.</p>
<p>ITXIERAKO TESTUA</p>	<p>Kexa kopuruak gora egin duela ikusi dugu, eta horrek erakusten du usainen gaian interes edo sentsibilitate handiagoa dagoela. INSPÍRE programa jarri dugu martxan, berrikuntza ekimen irekia, Petronorrek EAEko komunitate zientifiko-teknologikoari planteatzen diona irtenbideak bilatzeko, besteak beste, inguruneari usainengatik eraginak sortzeari aurrera hartzeko eta hori minimizatzeke erronkei. 132 kexari egin zaio arreta eta eragin zituzten arrazoiei konponbidea eman zaie.</p>

EKINTZA	Ingurumen Baimen Integratua betetzen den edo ez kontuak ematea.
DESKRIBAPENA	Eskumenak dituzten erakunde publikoei Ingurumen Baimen Integratua etengabe betetzen dugun jakinaraziko diegu. Agerian utziko ditugu eraginak arintzen dituzten jarduketak. Era berean, usainak eta zaratak amaitzeko taldeen ekintzen berri ere eman diezaiekegu Panel Publiko Aholkulariei.
ADIERAZLEA	Kexen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	2015ean Petronorren izan diren industria istripu eta gorabehera guztien berri eman diegu erakunde publikoei. Panel Publiko Aholkularietan, gauzatu diren hobekuntza ekintzen eta etorkizunerako programatuta daudenen berri eman zaie bertaratu diren langileei. 133 kexa jaso ditugu.

Eraginkortasun operatiboa

EKINTZA	Ura Kudeatzeko mapa bat egitea.
DESKRIBAPENA	Ura kudeatzeko mapa bat egingo dugu fintze jardueretarako, egoeraren diagnostikoa egin eta egon litezkeen arriskuak baloratzeko bidea emango duena. Hobetzeko ahaleginak hauek identifikatzeko izango dira: Baldintza erregulatorioak, aldaketa erregulatorioetara egokitzea Europar Batasunean, erreferentziarik onenen moduan identifikatutako teknologiak aplikatzeagatik, Finketa BREF eta CWW, zenbait zentrotan muga berrietara egokitzeko fintze hobekuntzak ekar ditzaketenak; uraren erabilerak: prozesuetan erabilitako ur kantitatearengatik eta igarotako urarengatik, zenbait erabilera ditu.
ADIERAZLEA	Ekoizpen Sailak identifikatutako erabilera adierazle guztiak (adibidez, bildutako ura, berrerabilitakoa, erabilerak...) Emisphere aplikaziora eramatea.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Identifikatutako erabilera adierazle guztiak Emisphere aplikaziora eraman ditugu, adibidez, bildutako ura edo berrerabilitakoa, abenduaren 1ean.

EKINTZA	Hondakinen mapa bat egitea.
DESKRIBAPENA	Ekoizpen jardueren ondorioz sortutako hondakinen mapa bat egingo dugu, eta murrizketa proiektuak eta helburuak zehazteko oinarritzko lerroa definitzeko balioko du. 2013an, proiektu honen lehen fasea egin genuen, eta dagoen informazioak osatuko du, hauek bilduta: hondakinei lotutako kostuak, kantitatea, arrisku ezaugarriak, hondakinen azken kudeaketa eta adierazgarritasuna fintzeko jarduerarako.
ADIERAZLEA	Enpresaren hondakinen mapa sendotzeko identifikatutako alderdi guztiak garaiz ematea Segurtasun eta ingurumen zuzendaritzari (%100).
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	2015eko abenduaren 1ean, enpresaren hondakinen mapa sendotzeko beharrezkoak diren hondakinen kudeaketa datu guztiak eman ditugu.

EKINTZA	Instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzea.
DESKRIBAPENA	Petronorren eraginkortasun energetikoa hobetuko dugu. Horretarako, inbertsioak egingo ditugu eta findegian aritzeko prozedurak aldatuko ditugu. Eraikinetarako aurreikusitako eraberritze lanetan kontuan hartuko dugu eraginkortasun energetikoa, oinarritzko alderdi gisa diseinu arkitektonikoetan.
ADIERAZLEA	Igorpenen kantitatea eta intentsitate energetikoaren indizea.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Intentsitate energetikoaren indizean eta atmosferara egindako igorpenen kantitatean jarriko dugu arreta instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Urtean 71.140 tona CO ₂ aurreztea ekarriko duten ekintzak sartu ditugu katalogoan 2015ean.

EKINTZA	Lurruna kontsumitzea eta sortzea murriztea.
DESKRIBAPENA	Lurrun kontsumoa murriztuko dugu eta, horrenbestez, galdaretan eta kogenerazioetan lurrun gutxiago sortuko dugu. Hartara, Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoko uraren kontsumoa gutxituko dugu.
ADIERAZLEA	Partzuergoko uraren metro kuboak gutxituko ditugu, aurreko urteekin alderatuta.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Aurreko urteen aldean, Partzuergoko uraren kantitatea kontsumitzea eta ekoiztea %60 murriztu dugu (80.000 m ³ urtean).

EKINTZA	CO₂ igorpenak murriztea.
DESKRIBAPENA	<p>CO₂ Murrizteko Plana gauzatzen jarraituko dugu. Ekintza eta inbertsio berriak zerbitzuan jartzean datza, esate baterako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lurrun turbinak mugiarazitako ekipamenduak ordezteak. Motor elektrikoak jarriko dira. - Erregai likidoaren ordez gas naturala erabiltzea. - Korrante bero tangentialak hobetu eta baliatzea, pump-around, ACL. <p>Ekintza horiek, beste batzuekin batera, eraginkortasun energetiko handiagoa lortzeko aukera ematen dute, eta, horrenbestez, CO₂ gutxitzekoa.</p>
ADIERAZLEA	IRCO ₂ .
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	<p>CO₂ igorpenak murriztu ditugu 2015ean, ezarritako helburuaren gainetik dauden balioekin, Petronorreko erakunde osoak txertatutako ekintzen katalogoari esker. Hartara, urtean 71.140 tona CO₂ aurrezteak lortu dugu.</p>

Ingurumen eraginak eta arriskuak kudeatzea

EKINTZA	Ingurumenean, osasunean eta segurtasunean izan ditzakeen eraginak ebaluatzea.
DESKRIBAPENA	Ingurumenean, osasunean eta segurtasunean izan daitezkeen eraginak aztertuko ditugu, proiektu desberdinen aztertze fase bakoitzean, bai eraikuntza berriari, bai daudenetan egiten diren aldaketei dagozkienak. Era berean, irizpide horiek prozedura eta aldaketa berrietan aplikatuko dira, nahiz eta itxura batean garrantzirik gabekoak iruditu.
ADIERAZLEA	HAZIDen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatu gabe.
ITXIERAKO TESTUA	Aldaketetan eta proiektu berrietan hartutako erabakien kasuan, ingurumen alderdiak HAZIDen aurretiazko fasean hartu ditugu kontuan. Hori dela-eta, ez dugu ingurumen ikuspegia aplikatu behar izan hurrengo fasean. Adierazitako ingurumen alderdiak gauzatzea aldaketen eraikitze diseinuan abiarazi dugu.

EKINTZA	Araztutako uraren kalitatea hobetzea.
DESKRIBAPENA	Findegiko ur araztegiaren lan egiteko modua optimizatuko dugu, berreskuratzen dugun uraren eta itsasora isuritako soberakinaren kalitatea hobetzeko. Birzirkulazioak murriztera bideratuko dira ekintzak; hartara, arazte fase bakoitzean ahalmen eta egote denbora handiagoa lortuko dugu, eta, hortaz, eraginkortasun handiagoa isuritako uraren kalitatean.
ADIERAZLEA	Uraren analitika, OEK bereziki.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Berreskuratutako uraren tasa hobetu dugu eta itsasora isuritako uraren OEK parametroa.

EKINTZA	Itsasoko ingurumenean eraginei aurrea hartzea.
DESKRIBAPENA	Ontzi-aldaketen zirkuituen lerrokatze zuzena ziurtatuko dugu zamalanetan eta lekualdaketetan itsasoko terminalean. Simulakro operatiboak egingo ditugu, eusteko esparruak eta abar hedatuta, gutxienez, urtean behin, txanda bakoitzeko. Langile guztiei itsas ingurunean izan dezakeen eraginaren berri emango diegu; eta bai isuriak izan ditzaketen ondorio mediatiko eta ekonomikoaren berri ere.
ADIERAZLEA	Isuriak kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Treatatze programa bat ezarri dugu 2015eko martxoan 3. atrakalekuan gertatutako isuriaren ondorioz. Programa horren bidez, hesiak nola zabaldu eta isuriak eusteko baliabideak nola erabili azaltzen zaie txanda bakoitzeko itsasoko terminaleko langileei. Helburua da ez gertatzea isuri gehiago.

EKINTZA	Estuarioan izan dezakeen eraginari aurrea hartzea.
DESKRIBAPENA	Piezometroen sarea kontrolatuko dugu. Hartara, akuiferoan eta aldameneko babes bereziko eremuan (BBE) izan dezakeen eragina ekidingo dugu. Piezometroen sarea etengabe zaintzen da eta aldian behin berrikusten da, bai lurpeko uren kalitatea, bai eta hura osatzen duten piezometroen integritatea ere.
ADIERAZLEA	Piezometroen sarearen kontrolen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Piezometroen sare osoa berrikusi dugu aurreikusitako kanpainetan (hiru hilean behingoak eta sei hilean behingoak), eskumenak dituzten agintariei bidaltzeko, Ingurumena Zaintzeko Planaren barruan.

EKINTZA	Estatuan aurrerapenak bultzatzea isurien kontrolean.
DESKRIBAPENA	Urtero laborategien arteko ekitaldi bat antolatu eta bultzatuko dugu Estatuan isurien kontrolaren azterketaren gainean. Hartan, goi mailako laborategiek parte hartuko dute. Ekitaldiaren independentzia bermatzeko, kanpoko laborategi ospetsu bat kontratatuko da, eta korrelazioaren datuen kudeaketaz eta tratamenduaz arduratuko da. Datuak isilpekoak izango dira eta laborategi kudeatzaileak bakarrik erabiliko ditu.
ADIERAZLEA	Laborategien arteko ekitaldia egitea.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Isurien analisiaren korrelazioa antolatu dugu eta Espainiako 14 laborategik parte hartu dute.

EKINTZA	Findegiaren eragin bisuala zaintzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Findegiaren eragin bisuala arintzen jarraituko dugu, egunetik egunera hobetuz. Zuhaitzez osatutako hesiaren ordezt, hosto iraunkorreko zuhaitzak jarriko ditugu. Bulegoetarako eraikinak berritzeko proiektuak egingo ditugu, kontrol-aretoetan, eta -1 eta 2. solairuetako aldageletan.
ADIERAZLEA	Egindako ekintzen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatzen.
ITXIERAKO TESTUA	1. eta 2. findegien kontrol aretoak berrituko ditugu. Inbertsio horrek bidea emango du findegi horietako langile guztiek lantoki modernoagoa, erosoagoa eta seguruagoa izatek.

6. programa

Bidezko jardunbideak: ustelkeriaren kontra egitea eta etika

Merkataritzako harremanak

EKINTZA	Hornitzaileek eta esleipendunek iraunkortasunean egiten dutenari jarraipena egitea.
DESKRIBAPENA	Hornitzaileen homologazio eta jarraipen auditoretzetan Gizarte Erantzukizun Korporatiboko printzipioekin lotutako alderdiak berrikusiko ditugu. Auditoretza horietan, barneko ziurtapen eta homologazio kontrolako sistemen funtzionamendua aldi berean berrikusi eta ziurtatuko dugu. Homologazio auditoretzak egingo ditugu. Petronorren eskaerak aipatutako esparruaren edozein arlotan betetzen ez dituzten enpresei zehapena jarriko zaie.
ADIERAZLEA	Irizpide hori barnean hartuta baloratutako kontratuen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Ctaima bidez, Etika eta Jokabide Kodea eman zaie enpresa guztiei, bai hornitzaileentzat, bai taldeko langileentzat ere. Kalifikazioan kontrolatzen da printzipio horiek errespetatzen ari direla. 2016an ebaluazioetan ere egingo da hori. Aipatutako adierazlea (GEK irizpideekin baloratutako kontratuen kopurua) ez zaio errealitateari egokitzen, irizpide horiek hornitzaileen kalifikazioetan ezartzen direlako eta aztertzen ari baikara ebaluazio prozesuetara ere eramatea.

7. programa

Bidezko jardunbideak: balio-katea

Hornitzaileak eta esleipendunak

EKINTZA	Gure esleipendunei informazio erabilgarria ematea euren mesederako.
DESKRIBAPENA	Urte bakoitzean findegian egingo ditugun lan nagusiei buruzko informazioa emango diegu zuzenean enpresa esleipendunei, euren baliabideen gaineko balioespenak egin ditzaten, barnean hartuta eten datak, tanga plana, kontratatzeko inbertsio nagusiak eta berritzeko kontratu garrantzitsuak. Etenen kasuan, aurreikusitako lanen plangintzari eta mantentze sailari ekipamenduan entregatzeko azken egunei buruzko informazioa emango dugu. Hartara, lanen plangintza errazagoa eta eraginkorragoa izango da esleipendunentzat.
ADIERAZLEA	Bileren kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Kudeatzaileen urteroko bileran, 2016rako planifikatu ditugun geldialdiei buruzko informazioa eman diegu hornitzaileei eta urtea amaitu aurretik bileretarako deiak egingo dizkiegu.

EKINTZA	Gizarte erantzukizuna sustatzea gure esleipendunen eta hornitzaileen artean.
DESKRIBAPENA	Esleipendunen eta hornitzaileen homologazio prozesuan, langileen lan-baldintzei buruzko alderdiak berrikusiko ditugu. Petronorreko gizarte erantzukizuneko estandarren berri emango diegu, eta antzekoak dituztenak baloratuko ditugu. Gure taldeko beste zentro batzuetatik egiten diren homologazioek irizpide horiei jarraitzeko koordinatuko gara. Fundazioekin aliantzak ezarriko ditugu, enplegarritasun zaila duten pertsonen enplegua bultzatzek.
ADIERAZLEA	Enpresen homologazioen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Gizarte Erantzukizun Korporatiboko irizpideak haztatu ditugu enpresen homologazio prozesuetan, eta pertsonen lansarien alderdiak aztertu ditugu. Hornitzaileak kontratatzeke, etika eta jokabide araua nahitaezkoa izatea erabaki dugu. Gure helburua da neurri horien betetze kontrolak garatzea ebaluazio prozesuetan. 2015ean, egin ditugun homologazioak bederatzi izan dira.

8. programa

Kontsumitzaileen gaiak

Bezeroen arreta

EKINTZA	Bezeroen gogobetetasuna hobetzea.
DESKRIBAPENA	Bisita egingo diegu Repsol Butano, Asfalnor eta Esergi enpresetako bezeroei, egiaztatzeko egindako ekintza planek gogobetetasun inkestetan jasotako aukerak kontuan hartzen dituzten. Bezeroek adierazitako alderirik nabarmenenak produktuen kalitateari, kexak ebazteari eta emandako arretari buruzkoak dira. Horrez gain, aplikatutako sistematikaren asmoa da prozesu eraginkorrak lortzea, ezartze maila handikoak bezeroarekiko harremanean.
ADIERAZLEA	Bezeroei egindako bisiten kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Bisita egin diegu Repsol Butano, Asfalnor eta Esergi enpresetako bezeroei, ekintza planen gainean duten gogobetetasun maila ezagutzeko, bezeroarengandik hurbil egoteak eztabaidak konpontzen laguntzen duela uste baitugu. Bestalde, produktuaren eta zerbitzuaren kalitatea dela-eta zer espero duten hobeto jakin dezakegu.

Marketin arduratsua

EKINTZA	Erregaien prezioen aldatetaren gaineko mitoak eta egiak argitzea.
DESKRIBAPENA	Erregaien prezioaren aldatetan eragina duten alderdiei buruzko informazioa emango dugu, gardentasunez eta ezer ahaztu gabe. Informazio hori herritarrek findegira egiten dituzten bisitetan erakusten den materialean jasoko da.
ADIERAZLEA	Zerbitzu orokorrek antolatutako bisiten kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Findegira bisitan etortzen diren taldeei erregaien azken prezioan eragina duten alderdien berri eman diegu. 69 erakunde izan dira, guztira, eta 2.415 pertsona.

Produktuen eta zerbitzuen segurtasuna

EKINTZA	Produktuei eta zerbitzuei buruzko informazio osoa, zehatza eta ulergarria ematea.
DESKRIBAPENA	Ematen ditugun produktuen erabilerari eta kontserbazio seguruari buruzko alderdi garrantzitsu guztien informazio osoa, zehatza eta ulergarria emango dugu. Hartara, produktuaren kalitatearen integritate egokia bermatuko dugu, eskuratzen denetik erabiltzen den arte. Albaranetan produktuaren segurtasunaren eta erabileraren gaineko datuak gehituko dugu, arreta berezia jarrita eraikuntzaren arlokoetan, esate baterako, asfaltoetan.
ADIERAZLEA	Gure produktuen bezeroen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Produktu bakoitzaren erabilera baldintzen gaineko informazioa eman diegu, bai bisitei, bai eta gure bezeroei ere (lau hornitzaile handiak). Hartara, informazio hori izanda, egiten ditugun produktuak arduraz erabiltzea lortuko dugu.

EKINTZA	Produktuen osasun eta segurtasun alderdien gaineko informazioa ematea kontsumitzaileei.
DESKRIBAPENA	Taldeek findegira egiten dituzten bisitetan, kontsumo seguruari eta osasunari eragiten dioten alderdi nabarmenen gaineko informazioa emango dugu.
ADIERAZLEA	Kanpoko harremanen bidez, arreta egindako bisiten kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	2015ean, laurogeita hamar talde etorri dira, eta, gure produktuak gaizki manipulatzeko edo erabiltzeko badira, osasunean eragin ditzaketen alderdi guztien berri eman diegu. Izan ere, gure produktuak hobeto ezagutzen badira, kontsumo arduratsua egingo dela eta bezeroek gure markarekin jarraituko dutela uste dugu.

EKINTZA	Arriskuen eta produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa ematea kontsumitzaileei.
DESKRIBAPENA	Produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa emango diegu kontsumitzaileei, eta dituzten arriskuez ohartaraziko ditugu. Produktua banatzaileei saltzeko dokumentazioan, egiten ditugun produktuen kontsumo seguru eta eraginkorreko baldintzei buruzko informazioa emango dugu.
ADIERAZLEA	Produktua saltzen zaien bezeroen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Produktuak saltzen dizkiegun lau hornitzaile handiei gure produktuen arriskuen eta erabilera egokiaren gaineko informazioa eman diegu. Informazio horren bidez, egiten ditugun produktuen kontsumo seguruaren eta arduratsuaren gaineko alderdiei zabalkundea ematea errazten dugu.

9. programa

Parte-hartze aktiboa eta komunitatearen garapena

Tokian tokiko edukia

EKINTZA	Boluntarioria akuilatu eta babestea, komunitatearen mesederako.
DESKRIBAPENA	Tokian tokiko boluntarioria elkarteei lagunduko diegu, baliabide ekonomiko handiagoak eta materialak emanda. Hartara, inguruko toki komunitateetan baliabide gehiago izateko bidea emango dugu. Boluntarioria talde horiek babes zibilarekin edo kultura eta gizarte arloko boluntarioriarekin lotutakoak izan daitezke.
ADIERAZLEA	Boluntarioen erakundeek ekimenez diruz lagundutako jardueren kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Hainbat jarduera egin ditugu inguruko boluntarioen elkarteekin (Muskizko Babes Zibila, Elikagaien Bankua, Muskizko Scout taldea, Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarte eta Gurutze Gorria) euren ekipamendua bultzatzeko eta jarduerak finantzatzeko edo haien gainean sentsibilizatzeko. Horrez gain, boluntarioria kolektiboko bost ekintzatan parte hartu dugu Petronorren.

EKINTZA	Inbertsio erabakiek enplegua sortzean duten eragina aztertzea.
DESKRIBAPENA	Petronorrek instalazioetan gauzatzen duen jardueretako bakoitzak bertako enpleguan duen eragina balioetsiko dugu.
ADIERAZLEA	Inbertsioen ondorioz sortutako enpleguen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	2015eko geldialdian 45 milioi euro inguru inbertitu ditugu, eta bi hilabeteen 1.000 lanpostu sortu dira.

EKINTZA	Beste ekoizpen sektore batzuei laguntzea, nagusiki lehen sektoreari.
DESKRIBAPENA	Petronorren lurak egituratuko ditugu, landa kalifikazio moduan, autoenpleguko enpresa ekimenak errazteko lehen sektorean. Jarduteko plan bat garatuko dugu, erakunde publikoekin batera, lursail egokiak eskura izatea ahalbidetzeko. Lursail horiek Petronorrenak dira, eta erabiltzeko lagako ditu, hitzartutako eta berrius daitekeen denborarako.
ADIERAZLEA	Autoenplegatuen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatzen.
ITXIERAKO TESTUA	Itsaslur-Pobeñaren izapideak bideratzen aurrera egin dugu, nekazaritza herrixka martxan jarri aurretik administrazioaren baimenak lortzeko. Dokumentazio teknikoá eginda dago. Bideratzen hasi gara. Oraindik ez da enplegurik sortu.

EKINTZA	Bertako ingurunearekin dugun konpromisoa handitzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Petronorretik hurbil dagoen lurraldea garatzearen alde egiten jarraituko dugu, orain egiten ari garen bezala. Aliantzak eta lankidetzak garatuko ditugu beste ekoizpen sektore batzuekin, besteak beste, lehen sektorearekin. Alde horretatik, lankidetzan arituko gara beste erakunde batzuekin batera nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza esparruetan garapenarekin zerikusia duten proiektuetan.
ADIERAZLEA	Petronorren toki esparruan egindako ekintzak.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Petronorren lursailen kontzesioan parte hartu dugu, Petronorretik gertu dagoen eremuan landa jarduerak bultzatzeko helburuarekin. Izan ere, findegitik hurbil dagoen lurraldea etengabe garatzea garrantzitsua da, gure ustez.

EKINTZA	Enpleguari eusten eta tokiko enplegagarritasuna handitzen laguntzea.
DESKRIBAPENA	Tokiko Garapen Agentziekin eta tokiko hornitzaileen plan eragilearekin hartutako konpromisoei eutsiko diegu, inguruko biztanleentzat zuzeneko eta zeharkako lan aukerak sortzeko. Somorrostroko Prestakuntza Eskolarekin elkarlanean arituko gara, praktiketarako ekipamenduak eskainiz, ikasketa programaren gainean orientatuz eta esleipendunen langileei prestakuntza ematea sustatuz. Antolatutako geldialdietan, sortutako lanpostu batzuk prekaritate egoeran dauden inguruko langileek hartzen saiatuko gara.
ADIERAZLEA	Muskiz, Abanto eta Zierbenako enplegatuen kopurua. Muskizen, Abanton eta Zierbenan bizi diren enpresa esleipendunetako enplegatuek.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Bertako enplegua emendatzen lagundu dugu: kontratatutako pertsonen %60, fabrika kimikoko operadoreerako azken hiru ikastaroetan. Inguruko udalerrietako pertsonak izan dira (Muskiz, Zierbena eta Abanto). Ekipamenduak eta fabrikako materiala laga dizkiogu Goi Mailako Prestakuntza Zentroari. Geldialdietan inguruko 100 langabe kontratatu ditugu. Hornitzaileen trakzio planaren prozesua garatzen ari gara.

EKINTZA	Inguruko herrien kezkak ebaluatzea.
DESKRIBAPENA	Operazioen inguruan kokatuta dauden herriek gizartearen, lanaren eta segurtasunaren arloetan dituzten kezkak ebaluatuko ditugu. Arlo horretan Panel Publiko Aholkulariek proposatzen dizkiguten ekintzak ezarriko ditugu. Eztabaidak egiazko informazioarekin bideratzeko beharrezkoa den informazioa emango dugu, teknizismoak erabiltzea ekidinda, ulertzen errazagoa izan dadin.
ADIERAZLEA	Panel Publiko Aholkularien saioen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Panel Publiko Aholkularien sei saio egin ditugu (hiru, udalerrri bakoitzean), eta Petronorrek eta panelek proposatu dituzten gaien gaineko informazioa eman dugu.

EKINTZA**Bertako herrietako ikasleentzako beka eskaintzea.****DESKRIBAPENA**

Inguruko Lanbide Heziketako ikastetxeetan ikasten ari diren ikasleei beka ematen jarraituko dugu, fintzearen arloarekin lotuta duten familia profesionaletan.

ADIERAZLEA

Emandako beka eta laguntzen kopurua.

GAUZATU DEN URTEA 2015

EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N**EGOERA**

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Pertsonen kultura garatzeak Petronorrentzat duen garrantziak bidea ematen du beka programak beste urte batez jarraitzeko. Aurreko urteetan bezala, 2015 honetan Muskizen, Abantón eta Zierbenan bizi diren ikasleentzako beka hirugarren hiru hilekoan argitaratu dira. 2014/2015 ikasturtean 33 beka eman zitzaizkien ikasle horiei. 2015/2016 ikasturtean, guztira, 50 beka banatzea aurreikusita dago.

EKINTZA

Bertako enpresa erakundeekin elkarlanean aritzea indartzea.

DESKRIBAPENA

Enpresen arteko lankidetzarako elkarte bat sortuko dugu hornitzaileekin. Garapeneko batzorde iraunkorra sortuko dugu, erabakiak hartzeko kide anitzeko organo moduan, eta garatu beharreko alderdi komunak aztertuko ditugu, adibidez, langabeen prestakuntza, enpresen eta hornitzaileen arteko lankidetzak eta abar. Somorrostroko Lanbide Heziketako Zentroa izan daiteke langileen enplegarritasuna handitzeko beharrezko eta berariazko jotzen den prestakuntza ematen duen erakundea.

ADIERAZLEA

Atxikitako enpresen kopurua.

GAUZATU DEN URTEA

2015

EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N

EGOERA

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Prestakuntzako eta praktiketako proiektuak egin ditugu langabeentzat, haien prestakuntza eta enplegua hobetzeko, Hornitzaileen Trakzio Plana abian jartzeaz gain, Lanbide Heziketako ikastetxeekin eta Tokiko Garapen Agentziekin. Gainera, lau hitzarmen sinatu ditugu irakaskuntza arautuko eta etengabeko prestakuntzako heziketa zentroekin. Horrez gain, prestakuntza plan bat egin dugu eskualdeko langabeentzat, FORLAN tokiko agentziarekin eta Somorrostroko Prestakuntza Zentroarekin batera.

EKINTZA	Muskiz herria berritzea ingurumenari dagokionez, bertako boluntarioria bultzatuta.
DESKRIBAPENA	Ingurumen arloko proiektuak egingo ditugu, kontuan hartuta Muskizko biztanleen eta Petronorreko langileen iritzia. Proiektu horiek hurbil dagoen inguruan garatuko dira: Barbadun ibaian, La Arena hondartzan, estuarioko dunetan, itsas paduretan eta kostaldean. Ibaiak eta itsasoak ekarrita flotatzen dabiltzan materialak kenduko dira, landare espezie inbaditzaileak kenduko dira eta ingurumen sentzibilizazioko kanpainak egingo dira, besteak beste.
ADIERAZLEA	Ingurumen planen kopurua Muskizen.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Petronorrek aktiboki parte hartzen du Barbadun ibaiko fauna eta flora babesten. Helburu hori izanda, hainbat berreskuratze programa egin ditugu bertako elkarte batzuekin, adibidez, Enkarterrialde Landa Garapeneko Elkartearekin. Plan berezi bat egiten ari gara, lehen izapidea bideratu duena; zehazki, basogintzako erabileretatik nekazaritza erabilerara aldatzeko beharrezkoa den lehen izapidea.

Inbertsio soziala

EKINTZA	Heziketa eskuratzea eta haren kalitatea hobetzean inplikatzeta.
DESKRIBAPENA	Inguruko ikastetxeek eskatzen dituzten eta erkidegoko erakunde publikoaren eskumen ez diren hezkuntza arloko ekipamendu proposamenak, ordenagailuak eta beste material pedagogiko batzuk finantzatzeko ditugu.
ADIERAZLEA	Ikastetxeekin izandako elkarlanen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Desfibriladore bat eman diogu Dolores Ibárruri BHiri, eta ikastetxeetako gurasoen elkarteekin lankidetzan aritu gara. Era berean, energiari eta industriako produktuen aplikazioei buruzko tailer zientifikoak egin ditugu, lau ikastetxetako eguneroko bizimoduan, sei egunetan. Jarduera horiek eginda ikastetxeetara eta ikasleen familiengana gehiago hurbildu nahi dugu.

EKINTZA	Inbertsio sozialeko programei eustea inguruko herrietan.
DESKRIBAPENA	<p>Nagusiki erakundeen arloan ezagunak diren tokiko taldeek sustatutako jarduerak elkarrekin finantzatu ditugu. Talde horien jarduketara esparruak hauek izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kirola. - Kultura. - Heziketa eta gizartea. - Soziokomunitarioa. - Ludiko-solidarioa, GKEak, fundazioak...
ADIERAZLEA	Finantzatutako elkarten kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Gizarte, kultura edo kirol elkarte bakoitzaren jarduera planari dagokion urteko finantzaketa egin dugu. Inguruko elkarten egituraren jarduerak elkarrekin finantzatzeko eskaerei erantzun diegu, eta guztira, 61 elkarte eta haien jarduerak finantzatu ditugu.

EKINTZA	Ikasleentzako praktikak eskaintzea.
DESKRIBAPENA	Unibertsitateen eta Lanbide Heziketako ikastetxeen prestakuntza eta informazio eskaera kontuan hartuko dugu, agerian utzita gizarterako zerbitzuaren irudia eta profesional berrientzako negozio ikuspegi objektiboagoa. Horrela, gizarte erantzukizun handiagoa lortuko dugu inguruarekin.
ADIERAZLEA	Beka jasotako edo praktikak egiteko hartutako pertsonen kopurua (gutxienez 1, gehienez). Kontuan hartutako eskaeren ehunekoa.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Eskaera guztiak kontuan hartu ditugu eta hiru ikasle aritu dira beken edo praktiken programetan.

EKINTZA	Bisitak eta mintegiak eskaintzea unibertsitateei eta Lanbide Heziketako ikastetxeei.
DESKRIBAPENA	<p>Unibertsitateen eta Lanbide Heziketako ikastetxeen prestakuntza eta informazio profesionaleko eskaerari erantzutea lortuko dugu.</p> <p>Bi lankidetzak jardura ezarriko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lanbide Heziketako ikastetxeek eta unibertsitateek Petronorren instalazioetara bisitak egitea erraztuko dugu. - Prestakuntza hitzarmenak eta praktikak egingo ditugu prestakuntza ezaugarri horiek dituzten erakunde horietako ikasleekin. <p>Laborategia leku egokia da mota horretako jardura tekniko-zientifikoak egiteko.</p>
ADIERAZLEA	Kontuan hartutako eskaeren ehunekoa.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Ikastetxeen eta unibertsitateen bisita guztiei egin diegu arreta. Guztira, mota honetako bost bisita izan ditugu.

EKINTZA	Talde ahulengan arreta berezia jartzea, enpleguaren gaian.
DESKRIBAPENA	Urte bakoitzerako kontratatze helburuak ezarriko ditugu enplegurako zentro bereziekin, hornitzaileekin eta industriako produktu laguntzaileekin. Ontzat joko ditugu era berean jokatzen duten edo gaitasun desberdinak dituzten pertsonak kontratatzen dituzten enpresak.
ADIERAZLEA	Enplegurako zentro bereziekin egindako kontratuen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Zerbitzuen zati handi bat enplegurako zentro bereziekin kontratatu ahal izan dugu. Hartara, Lismi legearen eskaerak gaindituko ditugu. 2016rako aurreikusitako ebaluazioetan kontuan hartuko dira alderdi horiek. Adierazlea aldatu nahi dugu, lortu nahi dugun helburura gehiago egokitzeko. Helburua da Lismi legea betetzen laguntzea eta ekimen horietan laguntzea. Hau izango litzateke adierazlea: "Material eta zerbitzuen ordainketak enplegurako zentro bereziekin".

EKINTZA	Inguruarekin ditugun harremanak sendotzea, Panel Publiko Aholkularien bidez.
DESKRIBAPENA	Petronorretik hurbilen dagoen inguruarekin ditugun harremanak bultzatuko ditugu. Horretarako, gizarte taldeei eta herritarrei babesa emango diegu eta haien aldeko interesa izango dugu, sustatzen dituzten jardueretan lankidetzan parte hartuz. Panel Publiko Aholkulariak inguruarekin dagoen bi norabideko komunikazio estrategiako beste foro bat dira, esparru eta jarduera guztietan.
ADIERAZLEA	Emandako laguntzen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Plan ugari garatu dugu hurbilen ditugun elkarteei laguntzak emateko. Petronorreko erakundeen artean, barnean hartu ditugu Izaite, Nanogune eta Bilbao Metr�poli-30. Gizartearen eta kulturaren arloko ekimenetan laguntzeko 129 ekintza egin ditugu.

Berrikuntza eta I+G

EKINTZA	Unibertsitateekin eta ikerketaren alorreko erakundeekin elkarlanean aritzea.
DESKRIBAPENA	Elkarlanean ariko gara unibertsitateekin eta erakunde teknologikoekin, egiten dituzten ikerketak babesteko, nagusiki ingurumenaren eta industriaren gaietakoak. Horren adibide da azken 16 urteetan Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Landareen Biologia eta Ekologia fakultatearekin batera egiten ari garen azterlana. Beste jarduera bat da etenaldietan gune konfinatuetan lan egiten duten pertsonentzako jarraipen txartelak garatzea eta erabiltzea.
ADIERAZLEA	Unibertsitateekin eta zentro teknologikoekin egindako lankidetzen kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Garapen teknikoak egin ditugu zentro teknologikoekin, uste baitugu industria, unibertsitatea eta erakunde teknologikoak gizartearentzat erabilgarriak diren produktu eta zerbitzuen garapenean elkarren osagarri direla. Garapen tekniko horietako bat geolokalizatzaile pertsonalekin egin da segurtasun arloan, Tecnaliarekin. Bi proiektu garatu dira.

Parte-hartzea eta elkarriketa

EKINTZA	Ingurutik jasotako ingurumen iradokizunak edo kexak aintzat hartzea.
DESKRIBAPENA	Herritarrek nabaritzen dituzten eta enpresak mota horretako ekintzetarako ezarritako protokoloa kontuan hartuz, informazio gehiago behar duten egoerei buruzko kexen edo deien %100ari erantzutea lortuko dugu. Jatorria identifikatzen saiatuko gara, kexa berriro errepikatu ez dadin.
ADIERAZLEA	Kontuan hartutako eskaeren ehunekoa.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Ingurutik jasotako ingurumen iradokizun edo kexa guztiak hartu ditugu aintzat (%100). Zehazki, ingurumen arloko 132 kexa eta/edo iradokizun izan dira.

EKINTZA	Iraunkortasun plan honen berri ematea.
DESKRIBAPENA	Barneko eta kanpoko komunikazio plan bat gauzatuko dugu, bi norabidekoa, 2015eko Petronorren Iraunkortasun Planean konpromisoa hartutako ekintzen gainean.
ADIERAZLEA	Iraunkortasun Planaren ekintza eta aurkezpen ekitaldien kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Plan honetako komunikazio eta sozializazio jarduera guztiak egin ditugu, hauek barnean hartuta: <ul style="list-style-type: none">- hiru aurkezpen, gure jarduera egiten dugun udalerrietako alkateen aurrean.- aurkezpen bat Panel Publiko Aholkulari bakoitzaren aurrean. Guztira, bi.- publizitate bat prentsan.- jardunaldi bat Izaiteren foroan

EKINTZA	Gure industria ezagutaraztea.
DESKRIBAPENA	Gure findegia ezagutaraziko diegu Muskizko biztanleei, gizarte zibileko elkarteei eta erakunde publikoei. Horretarako, informazio taulak egingo ditugu, hitzaldiak egingo ditugu eta foroak sortuko ditugu, Muskizko herritarren iritzi desberdinak ezagutzeko.
ADIERAZLEA	Egindako ekitaldien kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	2015ean Petronorrek 15 ekitaldi eta bilera egin ditu: berriketaldiak, zuzendarien elkarrizketak komunikabideetan, Muskizko udalerriko biztanleek gure konplexuko berrikerik garrantzitsuenak ikus ditzaketen informazio taulak eta findegiko berrikerik garrantzitsuenak azaltzeko bidea eman diguten foroak.

EKINTZA	Herri altxorrari Petronorrek egiten dion ekarpenaren kontu ematea.
DESKRIBAPENA	Herritarrei xehetasunez emango diegu informazioa Petronorrek Foru Ogasunari eta udalei ordaintzen dizkien zergen gainean, dagozkien aurrekontuekin alderatuta, agerian jartzeko Petronorrek egiten duen ekarpena. Zergen alderdi horiez gain, trakzio enpresa moduan, gure hornitzaileengan ditugun eragin ekonomikoen berri emango dugu.
ADIERAZLEA	Hileko bisiten kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Gardenki edo diapositiba bat sartu dugu taldeei egiten dizkiegun aurkezpenetan (astean bat). Diapositiba horretan, Petronorrek ordaindutako zergen zenbatekoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun Sailaren bilketa garbitik zer ehuneko ekartzen duen azaltzen dugu. Era berean, enpresa kudeatzen duen taldeari zerga alderdirik garrantzitsuenak jakinarazten zaizkio (hilean behin), eta enpresako langileei, ekitaldian izan diren zerga alderdi garrantzitsuenak, informazio piluletan.

EKINTZA**Inguruko taldeekin eta elkarteekin hitz egitea bultzatzea.****DESKRIBAPENA**

Inguruko taldeekin eta elkarteekin hitz egitea sustatuko dugu, bai zuzenean, bai eta Panel Publiko Aholkularien bidez ere.

ADIERAZLEA

Bileren kopurua.

GAUZATU DEN URTEA 2015**EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N****EGOERA**

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Aldian behingo zazpi bilera antolatu ditugu findegiaren inguruko taldeekin, haien ordezkarien bidez, batzuetan euren lokaletan, eta beste batzuetan guretan. Gainera, Panel Publiko Aholkularien bidez Petronorrek egindako ekintzak jakinarazi ditugu. Horren guztiaren bidez, Petronor positiboki integratzen ari da inguruan.

EKINTZA	Petronorren instalazioetara bisitak antolatzea, interes talde desberdinentzat.
DESKRIBAPENA	Petronorren instalazioetara bisitak egiten jarraituko dugu, bai langileen senitartekoentzat, bai beste talde batzuentzat ere, egun egiten dugun moduan.
ADIERAZLEA	Bisiten kopurua.
GAUZATU DEN URTEA	2015
EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N	
EGOERA	Gauzatuta.
ITXIERAKO TESTUA	Elkarteen, klubien eta erakundeen 80 bisita baino gehiago antolatzen jarraitu dugu 2015ean. Bisita horietan, interes taldeek jakin-min handiena agertu duten alderdiei buruzko informazioa eman dugu. Mota horretako bisitak egiten jarraituko dugu, gure ingurune hurbilenari instalazioak eta lan egiteko modua erakusteko.

EKINTZA**Komunikazioa sendotzea inguruko herriekin.****DESKRIBAPENA**

Berriazko komunikazio sistemak jarriko ditugu eskura bertako komunitateetarako. Bi norabideko komunikazio plataforma moduan, webgunea erabiliko dugu, enpresaren eta alderdi interesdunen artean. Sistema digitalez gain, ohiko euskarriak erabiliko ditugu: komunikabideak eta idatzizko dibulgazioa.

ADIERAZLEA

Argitalpenen eta informazio orrien kopurua.

GAUZATU DEN URTEA 2015**EKINTZA AMAITZEA 2015/12/31N****EGOERA**

Gauzatuta.

ITXIERAKO TESTUA

Hedabideetan, Gaztelu Berri aldizkarian eta beste komunikabide batzuetan, modu positiboan agertzea lortu dugu; eta bai Panel Publiko Aholkularietan ere. Sare sozialek, eta kexen eta erreklamazioen kudeaketak informazioa eman digute, inguruak gure jardueren informazioarekin zer espero duen jakin ahal izateko.

Ekintzen aurkibidea

Legezko oharra.	1
Planeko ekintzei buruzko Itxiera Txostena, 2015eko abenduaren 31n.	2
1. programa: Gobernantza.	2
Elkarrizketa prozesuak hitzartzea, akordioak errazteko.	2
Eskumenak dituzten erakundeei gure jardueren berri ematea.	3
Informazio garrantzitsua herritarrei jakinaraztea hobetzen jarraitzea.	4
2. programa: Giza eskubideak.	5
Kultura eta kudeaketa.	5
Ekonomiaren, gizartearen edo kulturaren arloko eskubideen alde egiten duten erakundeekin elkarlanean aritzea.	5
3. programa: Lan arloko jardunbideak.	6
Lan baldintzak.	6
Emakumeak sartzea Petronorren zuzendaritzan.	6
Elkarrizketa enpresaren eta langileen artean.	7
Barne elkarrizketa arina edukitzea sindikatuetakako taldeekin.	7
Aniztasuna eta kontziliazioa sustatzea.	8
Aukera berdintasuna sustatzea.	8
4. programa: Segurtasuna.	9
Kultura eta kudeaketa	9
Jokabidearen segurtasunari buruz egin dugun ikerketaren emaitzak aplikatzea.	9
Arriskua kudeatzea.	10
Suteen kontrako borrokari eta larrialdiei buruzko prestakuntza ematen jarraitzea.	10

Eguneroko jardueretan segurtasun operazionalerako jardunbideak sartzea.	11
Simulakroen gaineko informazioa ematea inguruko herriei.	12
Segurtasun jardueretan parte hartzea gure taldeko beste unitate batzuekin.	13
Suteen kontrako babes lehiaketetan parte hartzea.	14
Inguruko udalei Autobabes Plana aurkeztea, berrikusita.	15
Suteen kontrako parkeko ekipamendua sendotzea.	16
Arriskuen ebaluazioa sendotzea.	17
Merkataritzako harremanak.	18
Laneko segurtasunerako estandar handiak sustatzea enpresa esleipendunetan.	18
Langile esleipendunen segurtasunean aurrera egiten jarraitzea.	19
5. programa: Ingurumena.	20
Biodibertsitatea.	20
Biodibertsitatea babestea.	20
Klima-aldaketa.	21
Berotegi efektuko gasak aztertzeke nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.	21
Kultura eta kudeaketa.	22
Petronorrek Muskizen egiten duen jarduera ingurumen ikuspegitik kudeatzea.	22
Ingurumena sustatzen duten inbertsioak identifikatzea.	23
Zarata eta usainak amaitzeko taldeen ekintzak emendatzea.	24
Ingurumena sustatzen duten inbertsioei buruzko informazioa ematea.	25
Ingurumenerako eragina minimizatzea jardueren maila guztietan.	26

Ingurumen Baimen Integratua betetzen den edo ez kontuak ematea.	27
Eraginkortasun operatiboa.	28
Ura Kudeatzeko mapa bat egitea.	28
Hondakinen mapa bat egitea.	29
Instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzea.	30
Lurruna kontsumitzea eta sortzea murriztea.	31
CO ₂ igorpenak murriztea.	32
Ingurumen eraginak eta arriskuak kudeatzea.	33
Ingurumenean, osasunean eta segurtasunean izan ditzakeen eraginak ebaluatzea.	33
Araztutako uraren kalitatea hobetzea.	34
Itsasoko ingurumenean eraginei aurrea hartzea.	35
Estuarioan izan dezakeen eraginari aurrera hartzea.	36
Estatuan aurrerapenak bultzatzea isurien kontrolean.	37
Findegiaeren eragin bisuala zaintzen jarraitzea.	38
6. programa: Bidezko jardunbideak: ustelkeriaren kontra egitea eta etika.	39
Merkataritzako harremanak.	39
Hornitzaileek eta esleipendunek iraunkortasunean egiten dutenari jarraipena egitea.	39
7. programa: Bidezko jardunbideak: balio katea.	40
Hornitzaileak eta esleipendunak.	40
Gure esleipendunei informazio erabilgarria ematea euren mesederako.	40
Gizarte erantzukizuna sustatzea gure esleipendunen eta hornitzaileen artean.	41
8. programa: Kontsumitzaileen gaiak.	42
Bezeroen arreta.	42

Bezeroen gogobetetasuna hobetzea.	42
Marketin arduratsua.	43
Erregaien prezioen aldaketaren gaineko mitoak eta egiak argitzea.	43
Produktuen eta zerbitzuen segurtasuna.	44
Produktuei eta zerbitzuei buruzko informazio osoa, zehatza eta ulergarria ematea.	44
Produktuen osasun eta segurtasun alderdien gaineko informazioa ematea kontsumitzaileei.	45
Arriskuen eta produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa ematea kontsumitzaileei.	46
9. programa: Parte-hartze aktiboa eta komunitatearen garapena.	47
Tokian tokiko edukia.	47
Boluntarioritza akuilatu eta babestea, komunitatearen mesederako.	47
Inbertsio erabakiek enplegua sortzean duten eragina aztertzea.	48
Beste ekoizpen sektore batzuei laguntzea, nagusiki lehen sektoreari.	49
Bertako ingurunearekin dugun konpromisoa handitzen jarraitzea.	50
Enpleguari eusten eta tokiko enplegarritasuna handitzen laguntzea.	51
Inguruko herrien kezkak ebaluatzea.	52
Bertako herrietako ikasleentzako bekak eskaintzea.	53
Bertako enpresa erakundeekin elkarlanean aritzea indartzea.	54
Muskiz herria berritzea ingurumenari dagokionez, bertako boluntarioritza bultzatuta.	55
Inbertsio soziala.	56
Heziketa eskuratzea eta haren kalitatea hobetzean inplikitzea.	56
Inbertsio sozialeko programei eustea inguruko herrietan.	57

Ikasleentzako praktikak eskaintzea.	58
Bisitak eta mintegiak eskaintzea unibertsitateei eta Lanbide Heziketako ikastetxeei.	59
Talde ahulengan arreta berezia jartzea, enpleguaren gaian.	60
Inguruarekin ditugun harremanak sendotzea, Panel Publiko Aholkularien bidez.	61
Berrikuntza eta I+G	62
Unibertsitateekin eta ikerketaren alorreko erakundeekin elkarlanean aritzea.	62
Parte-hartzea eta elkarrizketa.	63
Ingurutik jasotako ingurumen iradokizunak edo kexak aintzat hartzea.	63
Iraunkortasun plan honen berri ematea.	64
Gure industria ezagutaraztea.	65
Herri altxorrari Petronorrek egiten dion ekarpenaren kontu ematea.	66
Inguruko taldeekin eta elkarteekin hitz egitea bultzatzea.	67
Petronorren instalazioetara bisitak antolatzea, interes talde desberdinentzat.	68
Komunikazioa sendotzea inguruko herriei.	69
Ekintzen aurkibidea.	70

www.petronor.eu

